

**2020ko MAIATZAREN 14an UDALBATZARRAK EGINDAKO EZOHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **4 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko maiatzaren 14an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ezohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Beloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and.

Covid-19ak eragindako alarma egoeran murgilduta, bilkura bideokonferentzia bidez egin du Udalbatzarrak. Hala, alkatea, Arana eta Elola zinegotziak eta idazkaria udaletxeko batzar-aretoan bertan egon dira, eta bai gainerako zinegotziek bai kontu-hartzaileak etxetik hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du ezohiko bilkura egitearen arrazoia dela, hain zuzen ere, Eusko Trenbide Sarearekin hitzarmena sinatzeko lehentasuna medio, ezin dela itxoin hurrengo ohiko bilkura egiteko egunera arte.

Ondoren, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- GAI HONEN BERRI JAKITEA

– 2019ko aurrekontuaren likidazioa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200514&punto=1>

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hemen jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatetzaren 0318 Dekretua, 2020ko martxoaren 25ekoa:

“Udal honen 2019ko Aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau **ERABAKITZEN DUT**:

Lehena.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n		3.002.797,91
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		10.761.010,97
Aurrekontuko zordunak :	5.352.242,09	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	5.515.376,84	
Aplikatu gabeko kobrantzak:	106.607,96	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n:		4.739.437,19
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.560.507,07	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.185.130,12	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	6.200,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		9.024.371,69
5.- Saldo kobragaitzak:		1.113.151,38
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		7.911.220,31

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	192.436,63
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-69.518,25
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	5.098.249,23
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	44.713,25
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	5.265.880,86

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.048.021,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	3.954.948,56
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	7.002.969,56

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

2.- TXOSTENA: 2019ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEAN, AURREKONTUEN EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200514&punto=2>

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaio Kontu-hartzailtzak 2020ko martxoaren 17an egindako txostena, eta jakinaren gainean geratu da: aurrekontuen egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa, eta Udalak onartu berri duen 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz egin beharrekoa zena, hain zuzen.

3.- EUSKAL TRENBIDE SAREAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TREN-GELTOKI BERRIAREN ETA TRENBIDE AZPIKO PASABIDEAREN ERAIKUNTZA FINANTZATZEKO.

Espedientea: 2020H9890001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200514&punto=3>

Lehenik eta behin, idazkari andreak akordio-zirriborroa irakurri du eta, segidan, gaia eztabaidatzeari ekin diote.

Eztabaidaren baitan, EH BILDU udal taldeak aztergaia mahai gainean uzteko eskatu du, hurrengo osoko bilkura batean aztertzeko.

Hori horrela, batzarburuak aginduta, lehenbizi aztergaiaren presa bozkatu dute. Honako hau izan da emaitza.

PRESA

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	—	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Beraz, aurkeztutako akordio-proposamena bozkatzeari ekin diote, emaitza honekin:

AKORDIO PROPOSAMENA

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	—	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du:

“2018ko maiatzaren 10ean, ETS Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak eta Zarauzko Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten; helburua zen Zarauzko tren-geltoki berriaren proiektuaren barruan jaso zedila oinezkoentzako azpiko pasabide bat, udalerriko iparraldea eta hegoaldea komunikatzeko.

2020ko urtarrilerako proiektuaren behin-behineko bertsioa eginda zegoen; bi jardueretan banatu daiteke:

- a) Batetik, trenbide-sareari dagokiona: Geltoki berria eraikitzea, eta trenbidearen eremua egokitzea (etorkizunean bikoizketa egiteko).
- b) Bestetik, inguruko urbanizazioari dagokiona: Gaztainpe eta Salberdin artean oinezkoentzako pasabide bat eraikitzea (gutxi gorabehera 12 metro zabalekoa), eta pasabidea integratzeko urbanizazio-lanak egitea trenbidearen iparraldean eta hegoaldean.

2020ko otsailean, ETSk hitzarmen-zirriborro bat bidali zuen. Udalak bere onspena eman zion, baina aldaketa batzuk eskatu zituen berari egokituko zaion ekarpenaren finantziazioan.

ETSk aintzat hartu zuen Udalaren eskaera, eta 2020ko martxoaren 24an egindako bileran erabaki zuen lankidetzeta-hitzarmen aldatuaren proposamena onartzea eta hura Udalera bidaltzea.

Proiektuan jasotako obraren hasierako aurrekontua 13.053.303,76 eurokoa da (BEZ barne). Zarauzko Udalak obraren kostuaren % 33,3ko ekarpena egingo du hura finantzatzeko; hau da, hasiera batean, 4.346.750,13 euro (BEZ barne); kopuru hori lau urtetako aurrekontuetan banatuko da.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmen-proposamenari buruzko txostena egin zuen.

Udal Kontu-hartzailetzak fiskalizazio ekonomikoaren txostena egin du. Aurrekontuan kontsignazio nahikoa badago 2020rako gastu-konpromisoari aurre egiteko, partida honetan: 1.1101.712.01.151.10.2020 (6918) ETS: Tren-geltokia eta azpiko pasabidea (434.675,13 euro).

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.- Ondoko gastu-konpromisoak onartzea, etorkizuneko ekitaldietarako (2021, 2022 eta 2023):

5.1101.712.01.151.10.2021 ETS: Tren-geltokia eta azpiko pasabidea	1.304.025 €
5.1101.712.01.151.10.2022 ETS: Tren-geltokia eta azpiko pasabidea	1.304.025 €

5.1101.712.01.151.10.2023 ETS: Tren-geltokia eta azpiko pasabidea

1.304.025 €

Bigarrena.- Onartzea ETS Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoarekin sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmena, tren-geltoki berriaren eta trenbide azpiko pasabidearen eraikuntza-proiektua finantzatzeko. Oinezkoentzako pasabide horrek trenbidearen iparraldean eta hegoaldean dauden egoitza-guneak lotuko ditu.

Hirugarrena.- Alkateak edukiko du hitzarmena sinatzeko eskumena, Udalaren izenean, bai eta hitzarmenean bertan aurreikusitako Jarraipen Batzorderako bi udal ordezkariak izendatzeko ere.

Edonola ere, hitzarmena sinatu baino lehen, Udalak berariazko adostasuna eman beharko dio proiektuari, udal eskumenekoak diren arloetan (trenbidearen jabari publikotik kanpo geratuko den gunearen urbanizazioa).

Laugarrena.- Sektore Publikoaren 40/2015 Legearen 53. artikulua xedatutakoaren arabera, behin hitzarmena sinatuta, haren berri eman beharko zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.”

ZUZENBIDE PRIBATUKO RED FERROVIARIA VASCA-EUSKAL TRENBIDE SAREA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEAN, ZARAUZKO TREN GELTOKI BERRIAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA BILBO-DONOSTIA TRENBIDE LINEAKO 85/688 K.P.-AREN INGURUAN BEHEALDEKO IGAROBIDEAREN DEFINIZIOA FINANTZATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Bilbon, 2020ko otsailarenean

BILDUTA

Alde batetik, Antonio Aiz Salazar jauna, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikita dagoen Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko jarduneko presidentea, eta helbidea 48001 Bilbo, Albia eraikina, Done Bikendi 8, 14. Solairua, du.

Eta bestetik, Xabier Txurruka Fernández jauna, Zarauzko alkatea, helbidea Zarauzko udaletxean duena, Zigordia kaleko 33. zenbakian, Zarautz.

PARTE HARTZEN DUT

Alde batetik, Antonio Aiz Salazar, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikita dagoen Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoko jarduneko presidentea, Administrazio Kontseiluak horretarako baimendutakoa, 2020ko martxoaren 24ko saioan.

Xabier Txurruka Fernández jauna, Zarauzko Alkate gisa, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1b) artikulua xedatzen duena betez, behar den bezala ahalbidetuta hitzarmen hau sinatzeko, aipatutako Toki Korporazioaren Udaltzarrak hartutako akordioan oinarrituta, 2020ko maiatzaren 14ko osoko bilkuran, idazkari andreak eman duen ziurtapenak egiaztatzen duenez.

Alde bietan gai honetarako beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta, hau

ADIERAZTEN DUTE

- I. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunei dagozkiena eskumena, oso-osorik Autonomia Erkidegoko lurralde barruan dagoen ibilbidea duten trenbideen alorrari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan xedatutakoa betez, eta baita interes orokorreko izaera ez duten herri lanena edo burutzapena beste lurralde batzuetan eraginik ez duenean, aipatutako Lege Organikoaren 10.33 artikuluan xedatutakoa betez.

- II. Aipatutako eskuduntza erabiliz eta Administrazioa bere kabuz antolatzeko duen gaitasuna erabiliz ere Euskadi Autonomia Erkidegoak, maiatzaren 21eko 6/2004 legearen bitartez "Red ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea" Erakunde publikoa sortzea erabaki zuen. Erakunde honen gizarte xedea Trenbide Garraioaren Azpiegiturak eraikitzea, zaintzea, kudeatzea eta administratzea da; horretarako ekainaren 118/2006 dekretuaren bitartez hainbat ondasun erakunde honi atxiki zitzaion, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos Sozietatearen kapitala murriztuz eta Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoari atxikiz, eta horien artean daude abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuz eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez transferitutako trenbide lineak, horien artean Zarautzik igarotzen den Bilbo-Donostia linea.
- III. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Jarraibideen berrikuspenak lurralde eredia definitzeko aukera ematen dutela. Berrikusten diren Lurraldearen antolamendurako tresna horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bitartez onetsi ziren behin betiko, eta hirigune konplexuetan garraio azpiegiturak antolatu ahal izateko ikuspegi sektoriala gainditu egin behar dela, eta hirigintzako estrategien eta azpiegituren aurreikuspenaren arteko korrespondentzia bermatu behar dela aurreikusten dute, kontzertazioaren kulturari sakonduz, parte hartzen duten erakundeen arteko harremanetarako"
- IV. Zarautz-Azpeitia area funtzionaleko (Urola Kosta) Lurralde Plan Partziala otsailaren 21eko 32/2006 onetsi zela behin betiko. Proposatutako ereduak Urolako zenbait udalerritako hirigune nagusien erabilera hobetzea aurreikusten du, Zarautz barne, eta baita ingurumenaren zainketa ere, eta horretarako hirigune nagusien trinkotzera eta indartzera bideratutako esku-hartzei lehentasuna ematea aurreikusiz, ingurumen arloko babes aktiboarekin batera. Halaber, errepideko eta trenbideko garraio azpiegiturari eta gainerako zerbitzu azpiegitura batzuei dagokienez, lurraldea egituratzen duten azpiegitura handiak finkatzearen eta egikaritzearen aldeko jarrera erakusten du. Tren Sistema Orokorriari dagokionez, Zarautzko udalerritik igarotzean, Trenbide Sarearen Lurralde Sektore Planaren aldaketa behin betiko onesteko dokumentuan zehazten dena beteko da, Otsailaren 27ko 41/2001eko Dekretu bidez onartua. Dena den, ekin beharreko ekintza espezifikoen artean trenbidea Zarautzen hirigintza aldetik integratzearen hobekuntza aipatzen du.
- V. Bi erakundeak, lanean ari direla geltoki berria eta behealdeko igarobidea eraikitzeko proiektuaren definizioan aldean artean 2018ko maiatzaren 10ean sinatutako lankidetzarako hitzarmenaren bitartez.
- VI. Zarautzko Udalak, 2008ko otsailaren 13an, behin betiko onetsi zuela Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Bertan, 76.978 m² inguruko azalera duen eta Salberdineko industria eremua bizileku gunea bilatzeko aukera ematen duen 10-2 OR Salberdin gunearen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren bitartez garatu den 10-2 OR Salberdin gunea definitzen da.
- VII. Erakunde Publikoak, hobetzeko duen helburuaren barruan, tren instalazioen hiri integrazioa hobea posible egiteko egiten duela lan. Kasu honetan, Zarautzen geltoki berria egitea aurreikusten du, Bilbo-Donostia lineako 85/688 K.P.-aren inguruan, nasen eta atari gunearen artean lotura segurua eta irisgarria hobetzeko xedez. Horretan eragina izango du Bilbo-Donostia linearen eskaria handitzeak (Zarautz-Donostia tartean batez ere). Horrez gain, udalerriarren bi aldeak, iparraldetik-hegoaldera, oinez eta bidegorri bitartez, lotzeko aukera emango duen azpialdeko igarobidea emateko aukera emango du.
- VIII. Hitzarmen hau, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan, eta hirigintza alorreko antolamendu, kudeaketa, gauzatze eta diziplinari dagokionez udal eskumenak ezartzen dituen apirilaren 7ko 2/2016 Legean, horren 17. artikuluan 9. atalean aurreikusitako eskumen-banaketaren arabera gauzatzen dela.
- IX. Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta harekin lotetsitako edo haren esku dauden Erakunde publikoek lankidetzara hitzarmenak sinatu ahal izango dituztela Autonomia Erkidegoen Administrazioen esku eta dagozkien erakundeekin, bakoitzaren eskumenen barruan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua xedatzen duenaren arabera.

Ondorioz, eta adierazitakoarekin bat etorritik, bertaratuek, duten ordezkartza erabiliz, Lankidetzara Hitzarmen hau sinatzen dutela, ondoren adierazten diren klausulen arabera

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoa eta Zarautzko Udala, geltoki berriaren finantzaketa eta eraikuntzan, eta Bilbo-Donostia lineako 85/688 K.P.-aren inguruan geltokirako sarrera izango duten azpialdeko igarobidea eraikitzeko lankidetzara aritzeko hartzen dituzten konpromisoaren baldintzak ezartzea da. Horrek, aldi berean, gaur egun dauden tren instalazioak modernizatzeko eta Bilbo-Donostia trenbide trazuak hartzen duen udalerriarren bi aldean arteko komunikazioa hobea posible egiteko aukera emango du.

Geltoki berriari sarrera emango dion azpialdeko igarobidea tokiko bide sistema bezala ezagutuko litzateke.

Bigarrenen.- Hitzarmenaren kargura finantzatu beharreko jarduerak.

Hitzarmenaren kargura, lehen atalean deskribatutako eraikuntza lanak finantzatu dira. Horren gutxi gorabeherako aurrekontua 13.053.303,76.- eurokoa da, BEZ-a barne.

Hirugarrenen.- Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca Erakunde Publikoaren konpromisuak.

Erakunde Publikoak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- a. Zarauzko geltokiaren Eraikuntza Proiektuaren lanaren egikaritzea kontratatzea, zuzentzea, gainbegiratzea eta alderdi teknikoetik ikuskatzea, amaierara arte.
- b. Finantzaketa partzialaren ondoretarako, obren aurreikusitako kostuaren %66,7 jartzea. Aurrekontua 8.706.553,57.- €-koa da, BEZ barne.
- c. Obrak amaitu ondoren, hitzarmen honen xede den proiektuaren barruan gauzatu behaldekoko igarobidea Zarauzko Udalari emango zaio, kontserbazio, mantentze eta garbiketa lanetarako, erabiltzaileentzako segurtasunezkoak izango diren baldintzetan.
- d. Euskal Trenbide Sare erakunde publikoak onartzen duen eta kontratuko aldaketan ondoriozkoa izan daitekeen esleipeneko prezioarekin alderatu gerta daitekeen edozein garestitze ekonomikori erantzutea. Aldaketa horiek, Hitzarmen honen laugarren klausulako e) atalean adierazten diren behaldekoko igarobidean edo urbanizazioaren eragina dutenean, erakunde publikoan bere gain hartuko du aldaketaren aurrekontuaren %66,7a aurrekontuaren %66,7a.

Laugarrenen.- Zarauzko Udalaren konpromisoak.

Zarauzko Udalak ondorengo konpromisuak hartzen ditu:

- a) Obra zuzendari eta dagokion laguntza teknikoak behar dituen beharrezkoetan parte hartu lanen exekuzio zuzenerako.
- b) Interesaturiko proiektua egikaritzeko beharrezkoak izan daitezkeen lurzorua eskuratzea.
- c) Lanen kostuaren %33,3ko ekarpena egitea, 4.346.750,13.- €. BEZ-a barne, eraikuntza-proiektua era partzialean finantzatzeko, ondorengo urtealdietan egingo diren ekarpenen bitartez:

2020	3,33%
2021	10%
2022	10%
2023	10%
- d) Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak Hitzarmen honen barruan gauzatu duen behaldekoko igarobidea eskuratzea, titular gisa dagozkion betebeharrak guztiak bere gain hartuz.
- e) %33,3ko proportzio berean aurre egitea esleipenaren prezioarekin erlazionatuta, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoak onartzen dituzkeen kontratuzko aldaketan ondorioz gerta daitekeen prezioaren edozein igoera, baldin eta aurreikusi gabeko geltokiaren inguruko behaldekoko igarobidearekin eta Udalak hartu behar duen ondoko urbanizazioarekin erlazionatuta badaude (hori, adibidez, eta izaera mugatzaileak izan gabe, baldintza geoteknikoak, ukitutako zerbitzuak, kalitateen aldaketak, eta abar izan daitezke), horiek eragina badute behaldekoko igarobidearen eta erantsitako urbanizazioaren eremuan. Salbuespen horrek ez du eraginik izango amaierako ziurtapenean, prezioen berrikuspenen... eta aurrekontu osoaren %33,3ko ekarpena egin beharko du.

Bosgarrenen.- Finantzaketa dela eta aldean konpromisuak.

1. Kontratazio espedientea lizitatu aurretik, Zarauzko Udalak, kreditu egokia eta bere gain hartzen dituen finantza konpromisoak estaltzeko adinakoa izatearen egiaztagiriak igorriko dizkie Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoari, hori eskatu eta hamar eguneko epean.
2. Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoak obra kontratuaren lizitazioa burutuko du, eta prozesuaren nondik norakoaren eta kontratuaren esleipenaren berri emango dio seigarren klausulan aurreikusten den izaera instituzionaleko Batzordeari.
3. Halaber, obra kontratua esleitzeko proposamena egin eta gero, Zarauzko Udalak, kreditu egokia eta bere gain hartzen dituen finantza konpromisoak estaltzeko adinakoa izatearen egiaztagiriak igorriko dizkie Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea Erakunde Publikoari, hori eskatu eta hamar eguneko epean.

4. Kontratu honen ziurtagiriak, Erakundeak izendaturiko Proiektuaren Zuzendariak eman eta gero, Zarauzko Udalera bidaliko dira, ordaindu beharreko diru kopurua azalduz, eta hark diru kopuru hori ordaindu beharko du, horretarako ezartzen den kontuan. Akatsik hautemanaz gero, Zarauzko Udalak erakunde publikoari jakinarazi beharko dizkio, bost eguneko epearen barruan, epe berean konpondu ahal izateko.
5. Gerta daitezkeen eta esleipenaren prezioan eragin ekonomikoa izan dezaketen kontratuaren gorabeherak (kontratu aldaketak, likidazioak, prezioen berrikuspenak, erreklamazioak, etab.) Euskal Trenbide Sarea - Red Ferroviaria Vasca eta Zarautzko Udalak bere gain hartuko dituzte, hirugarren eta laugarren klausulan zehaztutako % pean,.

Seigarrena.- Eraikuntza proiektuaren zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena edo idazketarako beharrezkoak diren bestelako lanak.

- 1.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzordea eratuko da. Batzordea lau ordezkari osatuko dute: Erakunde Publikoko bik eta Udaleko beste bik, eta hitzarmen honen sinatzaileek aukeratuko dituzte, hurrenez hurren, eta Obren Zuzendari fakultatiboa ere Batzordeko kide izango da.

Beraien eginkizunak hauek izango dira:

- a. Hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak behar bezala gauzatzen direla egiaztatzeko segimendua egingo du, elkarren arteko informazioa eta alde bakoitzaren konpromisoak behar bezala bete direla ikusteko ezarri beharreko irizpideak eta erak ezarri, alde bakoitzari dagozkion irizpideak betetzeko prozesua ahalik eta gehien arintzen saiatuz.
 - b. Kasu bakoitzean eskatzen diren irizpideen azkartasuna zailtzen duten oztopoen enkaitzea erraztea.
 - c. Hitzarmen honen xede diren jarduketak beteko direla bermatzeko beharrezkoak izango diren neurri buruzko informazioa ematea eta horiek proposatzea.
 - d. Hitzarmenak sor ditzakeen interpretazio eta burutzapen arazoaren ebazpena bilatzea.
- 2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, eta aldeetako edozeinek hala proposaturik, batzordea, jarduketan martxa egokiak hala eskatzen duen une oro bilduko da, eta haren presidentzia eta idazkaritza Erakunde Publikoaren esku egongo da. Bilerarako eta akordioak hartzeko quoruma kideen aho batekotasuna izango da.
 - 3.- Hitzarmenean Jarraipen Batzorde honetarako berariaz aurreikusirik ez dagoenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. kapituluko III. sekzioan araupetutako organo kolegiatuaren araubidea aplikatuko da.

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.

Hitzarmen honen izaera administratiboa da, eta bere interpretazioan eta garapenean, administrazioen arteko elkarlanerako hitzarmenei aplikatzen zaien ordenamendu juridiko administratiboak ezarritako irizpideetara egokituko dira.

Hitzarmen hau bi alde sinatzaileen adostasunez aldatu liteke.

Hitzarmen honek planteatzen dituzkeen arazoaren ebazpenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen ezarritakoa beteko da.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren ondoreak eta iraupena.

Hitzarmenak ez du eragingo inolaz ere, parte hartzen duten aldeek eskumenen baztertzera edo aldaketa, izan ere, alde horiek, hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoekin lotutako erantzukizunak baino ez dituzte hartuko beren gain.

Hitzarmen honek sinatzen den unetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanak gehienez ere lau urteko epean amaituko dira. Hori kaltetu gabe, ez ohiko zergatiak direla eta, aurreikusitako epea amaitu aurretik hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute luzapena, urriaren 1eko 40/2015 Legearen ezarritako terminoetan.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren iraungitzea.

1. Hitzarmen hau iraungi egingo da bere burutzapenerako hartutako konpromiso guztiak bete direnean edo hala ebazten denean.
2. Alderdien batek hartutako konpromisoren bat ez betetzeak, beste alderdiari eskubidea emango dio zorrotasunez bete dezan eskatzeko edo hitzarmena bertan behera uztea eskatzeko. Iraungitzea ebazpenaren ondorioz baldin

bada, aldeek, burutzen ari diren zerbitzuak amaitzeko baldintzak ezarriko dituzte.

Eta adostasuna adieraziz, bertara-tutakoek dokumentu hau lau kopietan sinatzen dute, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

4.- 10.2 –OR SALBERDIN– AREAKO R3 BIZITEGI-PARTZELA ERAIKITZEKO ALDEZ AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZEI BURUZKO HIRIGINTZA-ORDENANTZEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2020H7000004

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200514&punto=4>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, eguneko aztergai hau hizpide hartuta udal taldeek beren iritzia eman dute.

Eztabaidaren bukaeran proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Botoak alde:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Botoak aurka	–	
Abstentzioak:	9	(8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak)

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Udal gobernu-taldeak hala eskatuta, 10.2 –OR Salberdin– areako R3 bizitegi-partzela eraikitzeke bete beharreko baldintzak jasotzen dituen ordenantzak aldatzeko dokumentua idatzi zuen Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak.

Aldatuko diren ordenantzak jasota daude ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORrean eta 10.2 –OR SALBERDIN– AREAREN ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIAN.

Aldaketak ez du eraginik izango ez egiturazko antolamenduan, ez xehatuan. Antolamenduan dagoeneko jasota dagoen partzela bat eraikitzeke bete behar diren baldintzak bakarrik aldatuko dira, haren eraikigarritasuna, erabilera edo tipologia aldatu gabe (erregimen orokorreko etxebizitza tasatua).

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean aztertu eta eztabaidatu ondoren, 12 zinegotziek alde bozkatuta eta, beraz, legezko gehiengo osoaren “quorum”arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea 10.2 –OR Salberdin– areako R3 bizitegi-partzela eraikitzeke alde aurretik bete beharreko baldintzei buruzko hirigintza-ordenantzen aldaketari.

Zarauzko Udalak berak abiarazi du espedientea.

Bigarrena.- Espedienteak udal plangintzako aholku batzordearen txostena jaso beharko du.

Hirugarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Jendaurreko epea hilabetekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien zabaltzen den egunkarian jakinaraziko da.”

HIRIGINTZA ORDENANTZEN ALDAKETA, 10.2 –OR SALBERDIN – AREAKO R3 BIZITEGI-PARTZELA ERAIKITZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENA.

C.1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra. 10-2 areako –OR Salberdin- hirigintzako fitxa partikularra

12. TITULUA. HIRI LURZORUAN ETA LURZORU URBANIZAGARRIAN ORDENANTZA EREMUEN HIRIGINTZAKO FITXA PARTIKULARRAK

12.10.3. 10-2. area. Antolamendu geroratuko esparrua –OR SALBERDIN–

B) Area garatzeko hirigintzako zehaztapenak

8.- Hirigintzako eraikigarritasuna garatzeko arau espezifikoak. Hasieran, Salberdin esparrurako garatu beharreko Plan Bereziak, bizitegi-lursailetan sestra gainean eraikitako 101.500 m² ordenatu ahal izango ditu, gehienez. Horietatik, eraikitako 90.000 m², gehienez, etxebizitza kolektiboko erabilerara zuzendu ahal izango dira, 905 etxebizitza egiteko gehienez. Euskotrenekin egindako berariazko hitzarmen edo konpromiso baten bitartez bermatzen bada **trenbidearen trazadura lurperatzea edo, horrekin bateragarria izanik, Salberdin area eta iparraldean dagoen bizitegi-gunea lotzeko oinezkoentzako pasabide baterako aukera ematen duen beste edozein irtenbide**, lurzorua asko handituko litzateke, eta espazio libre eta berdeguneen sistema orokorrean sartuko litzateke. Egoera horretan Plan Bereziak, bizitegi-lursailentzako sestra gainean eraikitako azalera handiagoa agindu ahal izango du (5.500 m² sabai, gehi garaje eta trastelekutarako dagozkien sotoko solairuak), horietatik, gehienez, 5.000 m² eraikiak etxebizitza kolektiboko erabilerarako zuzenduko dira. Eraikigarritasun-hazkuntza hau, honako arau hauek jarraituta gauzatuko da:

8.2.- Hirigintzako eraikigarritasunaren hazkuntza osoa Trenbide azpiegituraren titularrari esleituko zaio eta) partzela bakar batean bilduko da, trasteleku eta garajeen erabilerarako egokituko zaion sestrapeko eraikigarritasunarekin batera.

9.- Babes publikoko erregimenetako baten mendeko etxebizitzaren estandarrak.

9.2.- Hala badagokio, **trenbidea lurperatzeagatik edo, horrekin bateragarria izanik, Salberdinen eta udalerriko iparraldearen arteko lotura nabarmen hobetzen duen beste edozein irtenbide emateagatik** esleitu den bizitegi gisako hirigintzako eraikigarritasun osoa (gehienez 5.000 m² eraikiak), babes publikoko erregimen baten mende dagoen etxebizitzetarako zuzenduko da. Bertan ere sartuko dira erregimen orokorrean udalak prezioa finkatu duen etxebizitzak. Kasu honetan etxebizitzak, gehienez, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioa baino 2,5 aldiz garestiagoak izango dira.

11.- Antolamendu, Urbanizazio eta Eraikuntzako arteztarauak .

11.3.- Esparruaren iparraldean Trenbidea lurperatzea, eta gainazaleko lurzorutan espazio libreak eta berdeguneak jartzea proposatu dute.

C.2.- Salberdin areako Plan Berezia. R3 partzelaren hirigintza-fitxa.

IV. KAPITULUA. LURZATI ERAIKIGARRIEN ARAUZKO FITXAK

"R.3. LURZATIA"

ERAIKUNTZA BALDINTZAK:

Sotoak: Lurzatiak eraikineko aparkalekuen sarrerak eta irteerak kokatzeko beharrezkoak diren sarbideak eskaini beharko

ditu. Aplikagarria izango da plan bereziaren ordenantza osagarria, ibilgailuak sotoetara sartzeko baldintzak arautzen dituen, Zarauzko Udalbatzarrek 2018ko otsailaren 22an egindako bilkuran onartutakoa.

GAUZATZEKO BALDINTZAK:

Plan bereziak arearen mendebaldean dagoen R.3 bizitegi-lurzatia izendatu du trenbidea lurperatzen bada **edo, horrekin bateragarria izanik, Salberdin arearen eta trenbidearen iparraldean dagoen bizitegi-gunearen artean oinezkoen pasabiderako eta komunikaziorako aukera ematen duen beste edozein irtenbide** gauzatzen bada, lurzatia gauzatzeko.

Trenbidea lurperatuko balitz, nabarmen handituko litzateke espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorreko lurzorua. **Halaber, trenbide-sarearen titularrarekin adostutako beste esku-hartze batzuekin ere lotu daiteke espazio libreen gehikuntza hori eta oinezkoen ipar-hego loturaren hobekuntza.** Horrenbestez, plan bereziak egin duen aurreikuspenean eraikigarritasun handiagoa antolatu du bizitegi-lurzatietarako, hitzarmenean nahiz plan orokorrean ezartzen den bezala.

Antolamendua egitean kontuan hartu da **trenbide-sarean esku-hartzerik egiten** ez bada ez dela arearen antolamendua gutxietsiko. R.3 lurzatia eraiki gabe geratuko litzatekeenez, espazio libre gisa erabiltzeko utziko da, eta erosotasuna sortuko duen berdegune handia eratzen da horrela oinezkoen pasealekuaren iparraldean.

Trenbidearen lurperatzea **edo beste edozein esku-hartze** egiteko gauzatze-prozesua urbanizazioa gauzatu ondoren egingo dela kontuan hartuta, Salberdinen urbanizazio-proiektuak R-3 lurzatia, eta trenbidearen ondoko gainerako zona guztiak, berdegune gisa egokitu beharko ditu, eta berdegune gisa egokitzeko behin-behineko egokitzapenerako obra horiek areako urbanizazio-karga gisa barne hartuko dira.

Lurzati honi dagokion eraikuntza-unitateak (bere ataria duen eraikina) bere oinarritzko eraikuntza-proiektua eta udal-baimena edukiko ditu. Eraikuntzen lehenengo erabilerako baimena emateko, Urbanizatzeko Jarduketa Programan ezarritako urbanizazio-obligazioak gauzatu beharko dira aldez aurretik.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko bederatziak hogeita bost gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.